

2.007


Tiburtzio donearen pestak



07 LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

AZALAREN LEHIAKETAN parte hartu duten kartelak



2007ko Plazaola Aldizkarirako azalaren lehiaketan parte hartu dutenak honako hauek dira:

Juan Maritorea - Edurne Etxeberria - Jabier Aranburu - Lierni Sestorain

Irabazle izan den **Amaia Agirre**ri ZORIONAKI!

Alkatearen agurra

Aupa Leitzar!

Aurtengoan ere hemen datozkigu Leitzeko Pestak, urtero legez, alaitasun eta umorez beteriko egunak izanen dira.

Lerro hauetatik, lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet programa osatzen eta pestetan ekitaldiak aurrera ateratzeko laguntza ematen duten talde eta lagun orori, beren laguntzarik gabe ezinezkoa izanen baitzen lan hau aurrera ateratzea.

Eskerrak baita ere pestetan alternatiba ezberdinak ematen dizkiguten txozna batzordeari eta gazteei, ezin dugulako ahaztu pestak herritarrek herriarentzat eginak direla.

Urte osoan Leitzako kaleetan entzuten den bezela, pestetan ere euskeraz bizi- ziteza gonbidatzen dizuet, gure hizkuntz maitea zaindu eta bizirik dagoela erakutsiz.

Amaitzeko eta gehiegi luzatu gabe, aipamen berezia etxean behar luketen denei, lehenbailehen gure artera itzul daitezten.

Gora Tiburtzio Donearen Pestak! Gora Leitza!



Leitzako Udala eta Aurrera Kirol ElkarteK
PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUETE
HERRITAR ETA BISITARI GUZTIEI

07 LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

abuztuak **4** larunbata *programa banaketa*

12.30 Potea gaiteroekin.

13.30 Eskelarien bazkaria Aurreran.

14.00 Auzoz auzo PLAZAOLA Aldizkariaren banaketa; trikitilari, txistulari, akordeoilari eta gaiteroen laguntzaz.

17.00 Txirrindulariak industrialdean.





abuztuak **5** igandea *umeen eguna*

- 08.00** Diana Txistulariekin.
- 10.00** Meza korporazio txikiarekin.
- ondoren** Aurrera Pilota Eskolako gazteak arituko dira plazan.
- 11.30-14.30** Umeentzako joko eta puzgarriak plazan.
- 14.30** Saharar Herriaren Aldeko bazkaria karrapean.
- 16.30-18.30** Umeentzako puzgarriak plazan.
- 18.30** Aurrerako dantzari txikien ikuskizuna plazan.
- 20.00-00.00** TRIKIDANTZ taldea. Ordu berean buruhaundiak ere aterako dira.

07 LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

abuztuak **10** ostirala *pesta bezpera*

11.30 Kuadrilen arteko Herri Kirolak.

14.30 Jubilatuen eta kuadrilen bazkariak.

18.00 TXUPINAZOA.




Ondoren Plazaola Aldizkariko azalaren irabazleei saria emanen zaie eta gero Leitzako txistulari, dultzainero, buruhaundi, erraldoi eta "Incansables" txarangarekin herrian barna kalejira.

22.00 SUZKO ZEZENA

00.00 IZOTZ taldea.

00.30 "Incansables" txaranga aterako da gaueko erronda egitera.





abuztuak **11** larunbata

Tiburtzio donearen eguna

- 08.00** Diana txistulariekin
- 09.00** Entzierroa eta behiak plazan.
- 10.30** Meza
- 12.00** Aurrerako Ezpatadantzariak
- ondoren** Afizionatuen arteko pilota partidak plazan.
IGOR ALDAIA-MIKEL IRIARTE / ASIER GARTZIA-UNAI OLANO
- 13.00** Aurreratik "Incansables" Txaranga aterako da.
- 18.00** Zezenak plazan.
- 19.00** Betsolariak plazan.
A. Egaña - M. Lujanbio - S. Colina - U. Iturriaga
M. M^a Elozegi "Luze" - D. Riaño
Gai jartzaile: Leitzako Bertso Eskolako kideak.
- ondoren** GOXOKIAK banatuko dira plazan.
- 19.30** Buruhaundiak aterako dira "Incansables" txarangarekin.
- 22.00** SUZKO ZEZENA
- 00.00** GAUBELA taldea.
- 00.30** "Incansables" txaranga aterako da gaueko erronda egitera.

07 LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

abuztuak **12** igandea *pesta bigarrena*

08.00 Diana txistulariekin

09.00 Entzierroa eta behiak plazan.

12.00 Herri Kirolak plazan.

HARRIJASOTZEN: Ostolaza, Migeltxo eta Urrutia

AIZKORAN: Gaztxoetan: Mikel Zabaleta eta Iker Vicente.

Helduetan: Nazabal-Rekondo / Olasagasti-Arria

13.00 "Incansables" txaranga Aurrera Elkartetik aterako da.

18.00 Zezenak plazan.

18.00 Aurrerako Dantzariak plazan.

ondoren GOXOKIAK banatuko dira plazan.

19.30 Buruhaundiak aterako dira "Incansables" txarangarekin.

19.30 SUZKO ZEZENA

22.00 TXIMELETA taldea.

00.00

ondoren LEITZAKO INGURUTXOA plazan.

00.30 "Incansables" txaranga aterako da gaueko erronda egitera.





abuztuak **13** astelehena *pesta hirugarrena*

- 08.00** Diana txistulariekin
- 09.00** Entzierroa eta behiak plazan.
- 11.30** Umeentzako ikuskizuna KULKI taldearen eskutik.
- 13.00** "Incansables" txaranga Aurrera Elkartetik aterako da.
- 18.00** Zezenak plazan
- 19.00** Tolosako ERRALDOI eta BURUHAUNDIAK "Incansables" txarangarekin.
- ondoren** GOXOKIAK banatuko dira plazan.
- 19.30** ASPE enpresaren eskutik pilota partida profesionalak Amazabal Pilotalekuan.
Apeztexea – Galartza VI / Olazabal – Apeztegia
Mtz. Irujo – Zubieta / Xala - Barriola
- 22.00** SUZKO ZEZENA
- 00.00** J & K taldea.
- 00.30** "Incansables" txaranga aterako da gaueko erronda egitera.

07 LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

abuztuak **14** asteartea *pesta laugarrena*

08.00 Diana txistulariekin

09.00 Entzierroa eta behiak plazan

11.30 Arrain paella lehiaketa karrapean.

11.30 Nesken pala partidak plazan.
IERA AGIRRE-SAIOA IRAOLA / JUDIT ETXARRI-MAITE URTASUN

13.00 "Incansables" txaranga Aurrera Elkartetik aterako da.

18.00 Zezenak plazan


19.00 Batukada Atakabeltz Gaztetxearen eskutik.


ondoren GOXOKIAK banatuko dira plazan.

22.00 SUZKO ZEZENA

22.00 Kontzetua: BISAI eta LOSDELGAS taldeak.

00.00 "Incansables" txaranga aterako da gaueko erronda egitera.





abuztuak **15** asteazkena *ezkondu eta bikoteen eguna*

08.00 Diana txistulariekin

09.00 Entzierroa eta behiak plazan

12.00 Herri Kirolak plazan.

AIZKORAN:

Arkaitz Olano - Xanti Olano

Ander Erasun - Hodei Larretxea

HARRIJASOTZEN:

Inaxio Perurena eta M^o Jose Sardon.

13.00 "Incansables" txaranga Aurrera Elkartetik aterako da.

14.30 Aurrerako Bazkideen bazkaria.

18.00 Ezkondu eta bikoteen entzierroa eta zezenak plazan.

18.00 Ezkondu eta bikoteen INGURUTXOA plazan.

ondoren GOXOKIAK banatuko dira plazan.

20.00 Buruhaundiak eta "Incansables" txaranga Aurrera Elkartetik aterako dira.

22.00 SUZKO ZEZENA

00.00 CANTARES DE HUANAGUATO mariatxia plazan

ondoren "Incansables" txarangarekin "pobredemie" Labetxeko ataritik aterata.

07 LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

SABADO 4 DE AGOSTO

Reparto de programas

- 12.30 Poteo con gaiteros
- 13.30 Comida para los que saldrán en el reparto
- 16.00 Reparto de programas
- 17.00 Ciclistas en el polígono industrial

DOMINGO 5 DE AGOSTO

Día del/la niñ@

- 08.00 Diana a cargo de los txistularis.
- 10.00 Misa presidida por la corporación de l@s niñ@s del pueblo.
- 11.30-
- 14.30 juegos e hinchables
- 14.30 comida a favor del pueblo Saharavi en el karrape
- 16.30-
- 18.30 hinchables en la plaza.
- 18.30 Ingurutxo txiki.
- 20.00-
- 24.00 TRIKIDANTZ

VIERNES 10 DE AGOSTO

Vispera de fiestas

- 11.00 Herri kirolak con los jóvenes del pueblo.
- 14.30 Comidas
- 18.00 Se dará comienzo a las fiestas con el tradicional repique de campanas y posterior lanzamiento del cohete. Acto seguido el alcalde hará entrega del premio al vencedora del concurso de portadas del programa.
- A continuación la txaranga "INCANSA-BLES" y la comparsa de gigantes de Leitza acompañada por txistularis darán la vuelta al pueblo.
- 22.00 Toro de fuego.
- 00.00 IZOTZ

SABADO 11 DE AGOSTO

Día de San Tiburtzio

- 08.00 Diana.
- 09.00 Encierro y vacas bravas en la plaza.
- 10.30 Misa
- 12.00 Ezpatadantza
- 18.00 Vacas en la plaza.
- 19.00 Bertsolaris
- Despues se repartiran caramelos
- 22.00 Toro de fuego
- 00.00 GAUBELA

DOMINGO 12 DE AGOSTO

Segundo día de fiestas

- 08.00 Diana.
- 09.00 Encierro y vacas
- 12.00 Deporte Rural
- 18.00 Vacas en la plaza.
- 19.00 Actuación de dantzaris del AURRERA.
- 22.00 Toro de fuego
- 00.00 TXIMELETA
- Despues Ingurutxo

LUNES 13 DE AGOSTO

Tercer día de fiesta

- 08.00 Diana.
- 09.00 Encierro y vacas.
- 11.30 Actuación infantil a carde del grupo KULKI
- 18.00 Vacas en la plaza
- 19.00 Gigantes y cabezudos de Tolosa acompañados por la txaranga "Incansables" despues se repartiran caramelos
- 19:30 Partidos profesionales a cargo de la empresa ASPE en el frontón Amazabal.
- 22.00 Toro de fuego.
- 00.00 J & K

MARTES 14 DE AGOSTO

Cuarto día de fiesta

- 08.00 Diana.
- 09.00 Encierro y vacas.
- 11.30 Concurso de paella (de pescado) en el karrape y partidos de pala.
- 18.00 Vacas en la plaza
- 19.00 Batukada a cargo del Gaztetxe Atakabeltz.
- Despues se repartiran caramelos.
- 22.00 Toro de fuego.
- 00.00 Concierto: BISAI y LOSDELGAS

MIÉRCOLES 15 DE AGOSTO

Día de l@s casd2s y parejas

- 08.00 Diana.
- 09.00 Encierro y vacas.
- 12.00 Deporte Rural en la plaza
- 14:30 Comida de soci@s en el Aurrera
- 18.00 Vacas en la plaza
- 19.00 Ingurutxo en la plaza
- Despues se repartiran caramelos.
- 22.00 Toro de fuego.
- 00.00 Mariachi CANTARES DE HUANAQUATO
- A continuación "Pobre de Mí"

Oharrak

- 1.** UDALAK ez du ZEZENETAN gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik hartzen.
- 2.** EGITARAUA borondatearen truke banatuko da. UDALETXEAN, LIBURUDENDETAN eta TABERNETAN ere salgai egonen da
- 3.** ZEZENETAN dabiltzanei eskapa bidea errezagoa egiteko, barreren gainean inor ez esertzea eskertuko genuke.
- 4.** Zezen suzkoan gerta daitezkeen erreketa edo bestelakoen kargu ez gara egiten.
- 5.** ARRAIN PAELLA lehiaketako arauak: bakoitzak bere sua eraman beharko du. Horretarako osagaiak norberak eraman beharko ditu. Paella lehiaketarako nahitaezko osagaiak: arroza (noski!), arraia eta bakoitzak nahi adina barazki. Hortik aurrera bakoitzaren gustuaren eta trebeziaren ariora eta betiere aurreko osagaiak errespetatuz. Epai-mahaiak bertsotan emanen du irabazlearen berri. Animatu zaiztea!

PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEN OHARRAK

- 1.** Plazaola Aldizkariaren antolatzaileek ez dute zertan ados egon behar bertan agertzen diren iritzi desberdinetako idazkiekin.
- 2.** Lanak bidaltzen dituztenek beren izenak jakinarazi behar dizkie aldizkariaren antolatzaileei, sor daitezkeen arazo legalaz idazkien egileen erantzunkizuna izanen direlarik.
- 3.** Gure eskerrik zintzoenak, aldizkari hau osatzeko, bere lanarekin lagundu duten idazle eta baita azalaren lehiaketan parte hartu dutenei ere

Batixte Perurena:

“Goizutan bertsolarin ingurun pesta ikiarrie izaten zen”


2006ko bukaeran Leitzeko bertsozale batzuk aparie egin giñun Etxetxuriko beheko elkarten. Koadrille politte bildu giñen, eta tartean bertsozale zaharrak eta bertso-eskolako gaztek giñeuden. Apal ondoren eskolako gazteak bertsotan hasi giñen eta giroa pix-

koat berotu nahiean mahaiaren beste

aldean zegoan Batixte zaharra zirikatu giñun. Etzun kantari hasteko askorik behar izan, alajainkoa! Ez hoixe! Bixi-bixi hasi zen, ahots dotorez, bildur edo lotsa izpirik gabe, eta erantzunetan behar aña egurre banatuz. Batixte “eskola” zaharreko bertsolarie da, taberna-zuloan kantari majiñe bat ordu sartutakoa, eta dudarik gabe, halakoak hobeak izaten die bertso-lagunetarako kontrariotako beño. Ustez eskutan ongi harrapatue dagoan amorraie “brizt” eskapatzen den bezelaxe, Batixtek ere hemendik edo handik billatuko do aurreko arrazobeari, hobena izanda ere, buelta emateko erantzun egokie. Gazteok teknika pixkoat erakutsi giñun, beño hark zailduta-ko bertsolarien kasta eta arrazobe txukunek botatzeko abildade latza. Sorpresa earra hartu giñun Batixtarekin, eta Plazaolarako elkarrizketa ttiki bet ittea pentsatu giñun. Hauxe da 2007ko maiatzen bere etxen izandako hizketalditxoaren laburpena.

Atsaldeon Batixte, konta zazo non sortu ziñen, eta nolakoa izan ziñun gazte garaie.

Batixte Perurena Apezetxea naiz, 1929n Goizutako Karreto baserrin iaioa. Ez giñun eskola askoik izan. 12 urterako lanen hasi nitzen mendin, ikatzi-tten. Lantei gorra izaten zen. Hamaikak hamabik aldera oben sartu, ta ordu bik aldera yeki, txondorrai buelta ittea. Erne ibi-



Ili beharra zen han! Goizutan, Azpeitin, Orozkon (Bizkaian) ere aittu giñen ikatzituen. Piñuk aldatzen e bai. Uhaldek izan zienen, 1947n Biutara etorri giñen, eta 40 psetas patzen ziuten zortzi ordu. Makauen, yornal earra zen hue! Bason eun guzie eurretan hamasei pezta yornala ta litro t'ardi ardo razioa ematten ziuten. Ta yateko, baba goizen, baba eguerdin, eta baba arratsen. Txuleta yateko martxa earra! Biutan hobekio giñeuden! Gero pixke pixke Frantzire hasi giñen, ta tira! Azkenen Leitzeko fabriken sartu nitzen lanera.

Nola hasi ziñen bertsotan?

Anaie zena (Joxe) ta biek etxen aitzen giñen. Guk gaxtetatik afizio ikiarrie izaten giñun eta 14-15 bat urtekin eo hasi izaan giñen. Giro txarra itten zunen txabolen aitzen giñen, ta yaietan ostatun. Gero, Andres Narbarte, Xalto zenarekin yuntatu eta majiñeat saio in giñuzen, ttririki ta ttarraka, hantxe biek. Hue ni biño hiru urtez zaharragoa zen. Ordun bertsotako aukera izaten zen, bai, nonahi izaten bait zen bertsolarie ! Ta onak, asko.

Nolakoa izaten zen orduko giroa ?

Tabernan sartu ta hantxe aitzen giñen yaiero, lotsabekerin. Xardenen, Urrutinen... denetan aitzen giñen. Goizutan bertsolarin ingurun izaten zen pesta ikiarria. Jende pusketan bueltan izaten giñun eta haitxek tragon bat atea eta hortxe ttiliki-ttalaka aitzen giñen. Halaxekoa izaten zen orduko pesta, trago batzuk in da, benga kantari! Ordun

pestetako bertsolarik hiru bat eunetako ekartzen zien ta urte baten Mitxelena ta Saiburu torri zien. Hantxe tabernan batetik atea zien ta ni launekin tokatu, ta haiek zirikatzen hasi zitzaizkien... botziok bertsoa horrei Karreto! Nik ze botako ziot horrei bertsoik? Halako baten koadrilleko bat kantari hasi "Aizu Saiburu..." ta hark buelta eman ta, nik seittu nun bertsoa ta bukatu. Hue arrimatu eta hantxe aittu giñen bik kantari. Ongi, eh? Hark bazekin bidea irikitzen ta gaie patzen. Beño yendea, holaxe, betea plaza, ta gu hantxe, erdi-erdin. Arreba lotsatute: "bueno Batixta, basta eh?". Ta gu han, eur baten kantari. Biamonen ere aittu giñen elkarrekin ta Saiburuk esan zien, "nirekin etorri nahi baduk bi urtetan morroi, yarrikoat bertsotan earki, bestela ez duk ikasiko", biño, guk gure martxa seittu giñun.

Gaiek yartzen al zien ordun?

Ez, ez. Ordun libren izaten zen, behar den bezela.

Ta kanpoko plazatan aittue al za bertsotan?

Pixkot bai, 12-13 bat plaza iñ izaan ttot, Goizuta, Lekunberri, Etxarri, Biuta, Arruazu, Arbizu, leku prankotan. Leitzeko plazan ez naiz aittu izaan. Tarteka deitzen zitean beño plazak eiteko behar do asko ibilli, ai te ai, korrittu. Ikusi ta ikasi. Ordun bai, seuru aitzen da bertsolarie.


>>>>

07 LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

Zeñekin aittu za bertso-
tan?

Gehina Xaltokin. Tiki-taka aitzen giñen elkarri bertsoa bota ta bota, ta bin launek hantxe eotten zien, batzuk baten alde, ta bestek besten alde. Goizutan bazen beste bat on askoa, Joxantonio zenan anaia, Joanito Perurena, Aiarrekoa, Leitzen bizi den horren anaie. Arizkun aldera edo yoan zen bizitzea. Hori txapelketan eta atera izan zen, eta seittu zun gerore. Florin da hoin atta Kankarro ere aitzen zen, ta hemen ta han beti izaten zen bertso-larin bat. Kristobal Beiñesekin Ollinen aittu nitzen, askotan. Hark bertsoa bota aurretik, mingaña ateatzen zun. Ta botzen zittun... krixtonak! Ona bertsolaria! Hilloba zun Joxemanuel Bordaberrikin e aittu izandu naiz. Hau lotsati xamarra zen osaban ondón. Lasartekin aitzea ere tokatu zat, Leitzen, karrapen. Tomax Barunekin ere aittue naiz, eta harek ere polliki itten zun. Gogoan dot behin elkarrekin aittu giñela bodegonen eta koñado Inazio lehertu zela



parrez. Iñaki Perurenakin e aittu izandu naiz. Hark e bazun afizioa.

Ta txapelketetan, parte hartu al dozo behiñ ere?

Bai, Naparroko txapelketan zenbait aldiz atera izandu naiz. Eztakitt seuro biño 1962 ingurue zen, Lekunberrin Xaltok irabazi zun, ta nik biarren ein nun. Gero, deitzen zitean, beño Xaltok ez bezela, pixke pixke utzi ein nun nik. Hor ibilli iñ behar do, dudik gabe, bertso-tan txukun eiñ behar bada, behintzat. Ari ta ari eiñ behar do, gauzetaz enteatu.

Batzuk beste lanik gabe hala ibillik die, eta ordun bai, bertso-tan earki eiñ.

Kontu zaharrak berritzen hasi eta Batixteri garai bateko bertso-giroko pasadizoak etortzen zaizkio bata bestearen atzetik. Lexoti eta Mitxelenan artekoa, Uztapide ta Zepaienak, Txirrita eta Pello Errotarenak, Udaregi eta Joxe Bernardonak, Xenpelarrenak, Bakallonak, eta pixka baten mahaiari begire yarrite, ttak, burue altxa eta seittun hasten da bertso haiek

kantatzen. Batzuk beatzi puntukoan, beste batzuk zortziko haundin... sorta oso osoak botatzen ditto segurantzi osoarekin. Eta pentsatzen yarrite, nola eduki litteke horrenbeste bertso burun? Auskalo! Bizitza osoan zehar behin ta berriz burun bueltaka ibilite, eta mille aldiz kantatute, segurasko. Gaur egun, noski, kantatzeko ohiture galduxe daukeu eta iñork gutxi botako luke bertso-sorta bat buruz. Beño itzul gattezen Batixtengana.

Zeiñ izan da zure bertsolari gustokoena?

Asko. Lasarte ikiarri ona zen. Zuzena, elegantea. Haren bertsoa! Earki plegatue! Errima igoalik ez, beño denak igoaltsuk, ttak! Aittu al ttazo haren omenaldiko bertsoak? Hoi bertsok! Talentuzko bertsok die horik! (tapa! botatzen dizkigu Lasarteren bertsoak txukun txukun). Txirrita ere markatik fuerakoa izan zen. Harek etzun eskola haundik biño, earrak bota zittun! Pello Errotak ere bai. Pareja bikañe osatzen zuten bi hoiak. Oañ ere badie onak, Lizaso, Peñagarikano, Egaña... ño! Onak die hoik, eh? Gazte hoik e batzuk asko eitten due, bai. Arzallus ta Colina, dotoreak bertsolarik. Neska re bai, Lujanbio, kirriki ta karraka (erreak patinatuz), earki aitzen da. Nik telebixion ikusten dittot hoik, beño oañ diferente da. Oañ gaie yartzen dioa, eta eskola behar do bertsolarik. Bestela, Xaltori pasa zitzaiona pasatzen da. Txapelketan yarri dioa gaie, Fabiola, edo eztaikit zeñen biudari bertsok botatze-ko, beño Xaltok ideik ez zeñ zen emakume hue. Nola botako zun hark bertsorik zertaz ai zien yakin gabe? Yakiñ balu, bai, botako zun seittun, beño, ez yakin, ordea. Horreatik esan dizot, gaiekin aitzeko es-

kola behar da, eta gutzako libren aitzea hobe izaten da.

Bai al dozo segideik bertso kontun, etxen?

Baaa, ez ta afizio haundiik. Mertxen (alaban) neskatoak bai, bado pixkoat, beño bestela ez. Goizuta alden ere aspaldi ez da bertsolariik atera, aleik ez. Gu hortxe aittu giñen koadrilletxoat, Xalto, Gregorito, Joanito, Andres Kankarro, eta besten bat, beño geoztik besteik ez da atea, dezenteik behintzat.

Orduko pasadizoak pilleka etortzen zaizkio Batixteri. Xaltorekin izandako bertsoalditaz oroitzen denean, halako disdira bat pizten zaio begitan, eta irriparr ttiki bat ahoan, garai bikañe izan ziren señaile. Eta besterik gabe, Batixterekin izandako hizketalditxo bukatzeko eta berriz ere elkarrekin saio ttikiren bat eitteko esperantzan, bertso koxkor bat eskatu diogu Batixtari:

San Tiburtziok bere garaian ekarriko dittu festak

Preparatutzen hasiak daude mutill gazte eta neskak

Guraso zarrek izangoittuzte beren familiko kezak

Esango dute: akabo oaintxe guk sobratu-tako peztak

MIEL MARI

07 LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

Martxan da Leitzeko iñauterietako atsaureak berreskuratzeko egitasmoa

Zalantzarik gabe, Leitzeko iñauteriak aspaldidanik dira famatuak biltzen duten jendetza eta bertan izaten den giro bizi eta bereziagatik. Dena den, urteen joan etorrian iñauteriak dexente aldatu dira eta beste zenbait gauzen artean, gaur egun ez da garai bateko atsaurerik ikusten. XX mende hasieran eta erdialdean, adibidez, atsaure bikainak ateratzen ziren. Behar bada, 1930 inguruko argazkian ageri den Plazaolako Aranburutarren koadrila da guztietan famatuena, eta leitzarren oroimenean arrasto handiena utzi duena. Pixkanaka ordea, eta ohiturak aldatu ahala, galdu egin zen atsauretzeko modu berezi hura. Duela 25 bat urte, leitzar koadrila bat berriz hasi zen lehengo atsaureak ateratzen eta zenbait urtez dotore asko egin bazuten ere, urteen burura galdu egin zen. Leitzeko kultur ondarearen galera honetaz kezkatuta, herritar mordoxka bat lehengo atsaureak berreskuratzeko zeezer egin behar zela pentsatzen hasi ginen. Besteak beste, garai bateko iñauteriei buruzko informazioa bildu genuen, eta 2007ko Leitzeko Kultur Astean, gai honi buruzko mahai ingurua antolatu zen. Egun hartan sortu zen eztabaidan herritarrek begi onez ikusi zuen garai bateko atsaureak berreskuratzea.

Hortaz, iñauterietan berriz ere lehengo atsaureak ateratzen saiatuko gara, herrian barrena ibiliko den kalejira bat eginez. Lehen kalejira 2008ko iñauterietako igande, astelehen edo asteartean egin liteke, edo egun bat baino gehiagotan, jendeak hala nahi balu. Igande arratsaldea egun egokia izan liteke. Igandean egitekotan, azken urteotan bezala, eguerdian karrozei lekua utziko litzateke, eta bazkal ondoren egingo litzateke atsaureen kalejira. Astelehena ere egun egokia izanen litzateke oso, eskelariak baserrietara joan eta egunean zehar herrian ez baita pestarik izaten. Astelehenean kalejira osatzeko ordea, eskelariak eta musikari asko faltako lirateke (askoz ere lehenago iristen ez badira behintzat). Azkenik, astearte arratsaldea ere egun egokia izan liteke atsau-



Plazaolako Aranburutarren koadrille, Leitzeko iñauteritan, 1930 aldera. Juan Luis Aranburuk utzitakoa

reen kalejira egiteko. Zein egunetan egingo da, hortaz, kalejira? partehartzaileek nahi duten egunean. Hortaz, jende gehien biltzen den eguna eta ordua aukeratuko da, eta bi edo hiru egunetarako behar adina lagun baleude, bi edo hiru kalejira egingo lirateke. Nolanahi ere, hobea izanen da alde-aldeko bat egitea erdipurdiko hiru baino.

Egitasmo hau gauzatzeko ondorengo urratsak emanen dira: hasteko, hilabete batzuk barru Kultur Taldearen laguntzaz, atsaureen kalejiran parte hartzeko gonbidapen-eskutitzak banatuko dira Leitzako talde eragileen artean (eskola, dantzariak, korala, jubilatuen elkarte, kirol-taldeak, elkarteak, ...) eta erantzuna zein den ikusiko da. Deialdia, noski, irekia izanen da, alegia, nahi duen guztiak parte har dezan lortu nahi da. Halaber, 2007ko bukaera aldera, garai bateko atsaureen sonbreroak eta jazkerak prestatzeko tailer modukoren bat prestatzeko asmoa dago, Kultur Taldea, eta behar bada, Okille taldeko jendearen laguntzaz. Ea bada, hainbat urtez Leitzako iñauterietan hain giro berezia sortzen zuten atsaure ospetsu haiek berriz ere gure kaleetan ikus ditzakegun. Zuetako batzuk animatuko zaretalakoan, iñauteriak arte!

ERREKA

Zorionak Leitze!

Zorionak Albiñon harrobia egiteko zegoen proiektuari ezezko borobila emateagatik, **herri konsultan** lortutako emaitza borobilarengatik eta politikariei herriari galdetuz gero herriak erantzuten duela erakusteagatik.

Zorionak kuartel bat herri mugimenduarentzako etxe bihurtzeagatik, herriak dituen azpiegiturak herriaren mesedetan erabiltzeagatik. **Atekabeltz herri gu-neal**

Zorionak 300 etik gora **EHNA** egin ditugulako, hemen herri bizia dagoela azaltzen dugulako, eta egunerokotasunean hau ez dela espainia ezta frantzia ere aldarrikatzeagatik.

Zorionak **euskaraz** hitz egiten duten leitzarrei, "hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitzegiten ez dutelako baizik".

Zorionak **Bai Euskarari** ziurtagiria lortu duzuen enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei euskararen alorrean garatzen ari zireten lanarengatik.

Zorionak **herri nortasuna** suntsitzen zuen makroproiektu bati ezezko borobila emateagatik. Etxebizitzak herriaren beharretara egokitu behar direlako, Leitza leitzarrentzat eginez!

Zorionak **errepresioari** emandako erantzunagatik, Igorren atxiloketa gertatu zenean paro orokorrek erantzun zitzaiolako. Atxiloketa bati inoiz Euskal Herrian emandako erantzun egokiena lortuz. Ongi Etorri IGOR!

Zorionak hauteskundeetan bozka **abertzaleen** gorakada nabarmenarengatik, 1402 bozka, espainiar alderdiek lortutako 349 bozken aurrean.

Zorionak **Larrainkideei**, 4. urtean 533 leitzarren ahotsa duintasunez entzunarazteagatik, traba guztien gainetik.

Euska Herria egiten
jarraituko dugu
eta gelditzen den guztia ere
lanean lortuko dugu.

EZKER ABERTZELEKO KIDE BATZUK

07 LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

Aurrerako bazkide hori

Dagoeneko iritsi dira herriko festak, San Tiburtzioak, eta urtero legez zuengana jotzen dugu zenbait berri emateko.

Behin baino gehiagotan adierazi dizuegun arren, iada jakingo duzue Aurrera Elkartearen zenbait berrikuntza egin ditugula azkenaldian. Horretarako jakin, Aurreraren egoera ekonomikoa duela 2 urtekoa baino hobea dela eta horrek lana erreztu egiten duela argi dago.

Bereziki, Etxeko komisia eta etxearen erabilerari eman nahi izan zaio indar handiena. Horrela bada, etxean egin diren eta egin nahi diren zenbait gauzen berri eman nahi dizuegu:

- Tabernako kafe-makina, mikroonda, ontziak garbitzeko makina, izotz-makina, ontziak eta horiek gordetzeko altzaria erosi dira jendearen erabilerarako.
- Etxeko elektrizitate sare guztia berritu da eta goiko solairuan foko berriak jarri dira argitasun gehiago lortzeko.
- "Canal +" jarri da.
- Atariko sarreran, forjazko eskudoa jarri da (Aurrera K.E.-ren irudiarekin) eta horren gainean hori argiztatzeko foko bat.

Aurrera begira egin nahi diren gauzak hauek dira:

- Karneta berria. Aurrerako bazkideak identifikatuko dituen karneta berria egin nahi da. Zertarako? Aurrerak hemendik aurrera antolatuko dituen ekintzetan bazkideek abantailak izango dituzte. Gogoratu, oraindik ere jendea falta dela datuak ekartzeko: NAN-aren fotokopia, bi argazki eta telefono zenbakia.



- Egoitzaren atzeko zatia txukundu. Otorduak egiteko egokitu: mahai batzuk jarri, barbakoa . . . Helburua bazkideak etxean bezala sentiaraztea da eta etxeari, Aurrera K.E.-ren egoitzari, erabilerari gehiago ematea, bazkideak horretara bultzatzea eta erabilerari hori behar bezala bermatzea.


- AURRERA EGUNA. Irailaren 22an ospatuko da. Pilota partidak, dantza saioa, rokodromoa . . . izanen dira egun horretan eta ondoren bazkideen bazkaria ospakizunarekin jarraitzeko.

Aipamen berezia egin nahi diegu Aurrera osatzen duten komisioguztiek (dantzariak; pilotariak; mendi taldekoak; futbolariak; gure "zaldunak"; etxeaz arduratzen direnak; festa, ihote, eguberri eta kross-az arduratzen direnak), beraiek gabe urtean antolatzen diren gauzak ezingo liratelako aurrera eraman. Bestalde, zoriondu baita ere "Aurrera Futbol taldea" aurten mailaz igo delako eta baita "Aurrera Pilota eskola" ere, hainbeste urteren buruan Herriarteko txapela herrira ekartzeagatik. Denori ZORIONAK!!!

Amaitzeko nola ez, zuek bazkideak zoriondu eta eskertu nahi zaituztegu egoera zailetan zuen laguntza eta fideltasuna eman diguzelako eta zuek gabe, gauza hauek guztiak ezingo genituzkelako aurrera eraman. MILA ESKER GUZTIO!!

Festa alaiak igaro ditzazuela eta

GORA SAN TIBURTZIO!!!!!!
AURRERA K.E.-ko ZUZENDARITZA



EUSKO ABERTZALE EKINTZA

Gutun honen bitartez, maiatzaren 27 ko hauteskundeetan Leitzako herritarrek EAERI emandako babes eskertu nahi dugu. Zirrara berezia sentitu dugu, herriak ezker abertzaleak egiten duen lana baloratzen jakin izan duelako. Konpromiso eta erantzunkizun osoz harturiko lan hau herria aurrera ateratzeko erabiliko dugu. Botorik eman ez diguzuenoi ere zera adierazi nahi dizuegu: EAEko alkatea herritar guztien alkatea izaten saiatuko dela, herriaren alkatea baita.

Segidan, hurrengo lau urteetan izanen dugun gehien-go osoa umiltasunez erabiliko dugula adierazten dugu, betiere oposizioko taldeekin adostasuna bilatuz eta erabaki garrantzitsu guztiak herriari azalduz eta herriarekin kontsultatuz eta kontrastatuz. Era berean, oposizioak herriaren alde lan egiteko bide guztiak

zabalik izanen ditu, EAEk udal politikagintza ezin baitu beste modu batean ulertu. Beraz, nahiz eta gehien-go osoa eduki, bide hori jorratuko dugu.

Leitza, leitzarrentzat eta leitzarrek egina leloa harturik, Herritarrei gonbita luzatzen diegu, herrian egiten diren ekimen ezberdinetan parte hartu eta bultzatzen dituzaten. Denon artean auzolanean herri nortasuna eraikiz.

Bestalde, Udal honek, bere neurrian, Euskal Herriak bakea eduki dezan lan egiten du, ez zerutik eroriko zaigun bakean, justizian oinarritutako bakean baizik, Euskal Herriak bere hitza eta erabakia askatasunez gauzatzeko duen eskubidea bermatuko duen bakean.

07 LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

Txantxangorri entzun dut (Mañontzi doinuan)

Txantxangorria entzunez
alaitu egin naizenez
nere bizitza kontatu nahi dut bertso hauen bidez
lanik ez zait faltatu, ez
gure familiko legez
zerrategian egin nuen lan berrogei bat urtez

Sei térdietan gosaldu
ta zerrari garaiz heldu
hamaika orduz lan egiteak okerrik ba al du?
ez, arazotxo bat salbu
zerbait nindula makaldu
irabazi nun ogia beño entzumena galdu

Maripazen deiadarra
latza duena indarra
entzun nezakeen ta igandetan billoben negarra
baina ez zen ez, earra
entzungor bizi beharra
marru ta bullak billakatzea entzungai bakarra

Ez oihu ta ez oihartzun
berdin hurbil berdin urrun
gogorreria gogorregia bihurtu zitzaigun
tristeena zer ote nun?
nekez nezake erantzun
agian plazan bertso-saiorik ezin nula entzun

Estaliz gabezi hura
azkar hartu nun ohittura
ez entzun arren adierazteko baiezko itxura
behin Maripaz zen ingura.
Esan zidan: "Bukatu da!
Rufino hitzik ez duzu entzuten.
Goazen medikura".

Doktorak zer talentua!
Fiñak begi ta eskua
kable batzuekin prestatu zidan esperiméntua
entzun behar zen kantua
nik, nonbait, ez aditua,
soñu bakarra entzun bait nuen nik neuk asmatua

Belarritan altaboza?
Doktora nik badut lotsa!
Haseran hura ez nuen jotzen tresna aproposa
Baina tresna zen ipotxa
ttikia bezain zorrotza
lehenengo kezka zitzazkidala bilakatu poza

Beheko ateko aldaba
mus partidaren zirrara
zenbat opari zekartzan tresnak belarrietara!
Amaitu zen soinu-gaba
dena entzuten dut iada
eta daukadan irripartxoaren benetazkoa da

Goizetik altxor andana
txantxangorriaren diana
eta plazako alaitasuna, iristen zaidana
hotsak zerura narra
piztuz sentitzen dedana
gauza txikitzen aurkitzen dela bizitzaren xarma

Irakeko atakea
billoben gerra-partea
ta Maripazen sermoi zaharra arantzez betea
hobe da ez entzutea
soñuei itxiz atea
tarte-tartean "klik" itzaltzen dut eta zer pakea!

Nahi bada gustora bizi
ongi entzun behar lehenbizi
katxarro honen izenik iñoiz etzazue ahantzi
"Sanotone" zen, bai... kasi
berriro ote naiz nahasi?
entzun ehun aldiz entzun dut baina ezin dut ikasi.

Leitzako lagun berri

Leitza aldera begira esnatzen naiz prankotan, eta gaur ere bai. Len banituen iñolaz aztu eziñezko lagun oparoak bezin leialak, baiña azken aldi ontan badijoaz banaka-banaka nere lagun izandako batzuek. Denok zartu nai ta ortan ere neurri juxtu samarrak dauzkagula dirudi, baiña aurrez jakingo bagendu gure azkena noiz eta nola izango dan, gaizkiago ibiliko giñela iruditzen zait, nola ez: bein jaitzen da pertsona ta il ere bai.

Diodan auxe gertatu zitzaion Leitzako Lorentxo Lasarteri: ondo eza sentituta Iruñera medikuarengana joan omen zan eta medikuak ikusi edo miatu zue-nean, etziola gauza txarrik bilatzen eta lasai artze-ko esanda bialdu, ta etxera zetorrela, bidean beste atakeren bat emanda oso gaizki jarri gizona ta ez dakit bizirik iritsi zan etxera iño, baiña gauzak estu izango ziran dudarik gabe.

Ori da atarramentu pobrea, milla bider esanda ere, beretzat ta familiarentzat. Supritu bearra daukagu mundu ontan, gero zoriontsu izan nai badegu bestean. Destinoaren emaitza jasoko zuen Lorentxo Lasarte gure adixkide apalak. Bere umiltasuna gogoan artua dedan gisara aipatuko det; izlari goxo eta atsegiña beti gustatu oi da, ta nik sekulan ez nion arrokerizko esaera baldarrik entzun. Berez serio antzekoa izanik, errespetagarri utsa zan gizon leial eta sakon ura. Biotzez, berriz, guztiz aberatsa. Jakin nuen Leitzan jendetza izugarria bildu zala bere illeta Elizkizunean. Leitzako errian lagun asko zituen, baiña bai beste ainbat erritan ere, alde denetan eza-gunak; beraz, makiñatxo batek pena artuko zuen Lorentxo Lasarte il zanean.

Ni neroni ere ez ninduen unerik ederrenean arrapatu bere eriotz trixteak, baiña iñor ez gera ortik libre. Jainko onak salbatu gaitzala estualdi guztietan, ala komeni bada, eta Lorentxo Lasarteri agur bero bat eskeintzen diot lurretik zerura, ea an elkartzan geran anai jatorrak bezela, ta baita ere Lorentxoren andre alargunari eta pamili guztiari samin agurra bialtzen diet idatzi onen bidez. Denoi laguntzen dizuet sentimentuan, berandu bada ere, baiña nik ere ez dauzkat gustoko egun alaiak beti.

Baiña Leitzatik badatozkigu kontu alaiagoak ere, irakurle.

Abel Barriola, askoren adixkide ona, Euskalerriko izarra omen zera, ez da nolanaiko titulua, baiña zuk merezi zenduena bai, adibidez. Zure eta Irujoren arteko norgeiagoka ikusi zuten pelotazaleak aozabalik geratuak dirala diote ainbat aldetan; izan ere, partidu zoragarria jokatu zenduten nola zuk ala Irujok. Aurrera antzean ere kostako da ain ederrik ikusten.

Abel Barriola, zorionak zuri, ni ez naiz jakintsua gai ortan, baiña berez ona danari antzematen diot. Gozatuko zera Leitzan gau batez egin gendun afari gozo artaz. Zuri omenaldia egin zizuten zure lagun jatorrak, eta orduantxe erakutsi zenidan eskubi aldeko eskua, neri bildurra eman zidana, ta esan nizun, oker ez banago orrek denbora asok beariko du ongi jartzeko, nere iritzia orixe baizan, eta gerora aldatu dira gauzak, Abel, zure onerako, bejondai-zula! Oraingo modura jarraitzen badezu, aurrera antzean zurekin ez da giro izango.

Biok erri bereko semeak gera zorionez, Leitzarrak. Leitzan beti sortu zaizkigu mailla aundiko kirolari sonatuak eta zu, Abel Barriola, aietako bat zerala ez legoke nik esan bearrik, baiña ainbestearino arritu ninduzun, Irujoren aurka jokatu zenduen partidua ez baizan txantxetako; beti gogoan edukiko dute pelota maite dutenak, eta pelotarien neke guztiak eskertzen, badituzte naiko lanak.

Ori horrela izanik, beste au ere adierazi nai nuke, Abel, kantxan gizon umila agertzen zerala: onekin osatzen da zure nortasunaren ixpillu garbia.

Diru asko jokatzen duenak ikusten al du partidu sonatu oietakorik bear bezela? Nik ez det uste. Pertsona bakoitzak bere aldera tiratzen dio sokari partidua asieratik bukatu bitartean, dirua jokatze-ko apizioa duenak alegia, eta gero irabazten badu, gustora, baiña galtzea gertatzen danean, kontu serioak eta bekosko illuna ikusten zaizkio, ta ori ez da ona.

MANUEL LASARTE

LEITZA 07

07 LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

Ateraldik eta ixtorik

LASTAIRE EGITEKO BOTORIK EZ

Joxemartin eta neska bat hasi ziren larruten lastairen gañen eta lastaire zokotu egiten. Eginhalak egin eta elkar ez harrapatzen behar den lekutatik Han omen ziren komedik

Gero Joxemartinek esaten zuen: Neregana ez etorri lastaire egiteko boto bille

EGUN BATEAN SARTU ETA BESTEAN ATERA

Bai hala egiten zuten. Egun batean sartu tabernan eta bestean atera. Argimezara etorri, ondoren usualak edaten hasi...eta hurrengo goizalden atera tabernatik.

- Erdie eta erdie yoakatu behar zetiu truken
- Kartak partitu eta atera buenosa.
- Aurrena gure , erdire txar eta orain truk
- La marga dedios potrolotue hemen diit. Euki in beharko zeyu.
- Eta galtzen badiu?
- Eta zer? Hi elizeko arrotobek baño pobregoa haiz motell.
- Eta gero zorrez bete eta zurin beltza yarriko die.
- Yoka
- Hirukoa
- Par
- Aurrena zun. Galdu diu. Kakalardo ederra egin diu. Baztar guzitatik galera. Lur yoko diu.
- Zer dok ba holaloko mixerik kontatzeko.
- Lehengo asten astoa hil zeyuk norbattek. Baño ikasiko diit zeinek.
- Nola?
- Tolosara yonen nak aztingana eta hark esanen zaiden
- Guri aharie ohostu zeyuen eta Santakutzen kandelan biurritue yarri nien da erori huen lapurre.

- Bandoa yo dik gurdin patentek hartzea yoateko.
- Bai eta alkaten gurdie patenterik gabe.

Herrigizonak batzarren hartutako erabakik eta apezak kulpitutik esaten zituztenak han yorratzen zituzten. Herri askotan ziren igande eta yaietan tabernan egun guzie botatzen zuten agureak. Zuberoan ere esan zidaten han ere bazirela egun batean sartu eta bestean atera egiten zutenak. Herriz herri yonda norbaitek hauen ateraldi eta pasadizoak bildu nahi balitu badauke hor gaie.

Erdie ta erdie=Litro ardo baten balioarekin litro erdi bat ardo erosten zuten eta beste erdiaren balioarekin galletak edo beste zerbaite.

Zurin beltza yarri=Etxen gañen edo lurren baten gañen zorran eskriture egin.

Potrolotue=hiruko bastoa.

ONGI ENTERATUE

Lagun bat eta bik yoan ginen Iruñera. Lagunak esan zidan bazekiela bazkaltzeko leku bat oso ona, merke eta oso ongi yaten zena. Askotan yoaten zela hara yatera eta ostatu horrek "Baztan" zuela izena. Ez zekiela zein herritakoak ziren baño nagusie eta etxekandrea baztandarrak zirela. Euskaldun garbiak omen ziren. Neskamea ez, meskamea erdaldune omen zen.

Hala, yoan ginen ostatu hortara bazkaltzera. Eta zerduta nagusie eta etxekandrea Oibarkoak (Aibar) , euskaraz tutik ez zekitenak eta neskamea, Txilekoa, euskaraz oso ongi moldatzen zena!
Gauz bat bakarra zen egie : ongi eta merke yan genuela. Banabar gorri bikainak yan genituen eta gañea gañeakoak.

ERANTZUN EGOKIAK

Joan.-Zenbat erretzen dik hire kotxek?
Joseluis.-Botatzen zaion guzie.

Joan.-Bart non apaldu ziñuen?
Joseluis.-Mayen.

EZ DA IKUSTEN

Basolarik egun guzin aritu ziren yo ta keia lanen eta ilunabarrean bildu ziren txabolara.Hasi ziren apal-
tzen eta Miel arrantxeroak esan zuen:
-Nek ardorik ez dot edaten.
-Eta Billartak: Amorrayek ure noiz edaten dun ez da ekusten.

KARRAKAK ELIZEN ETA HERRIN BARRENA

Lehenago baziren elizen karraka haundi batzuk. Orain dela berrogei ta hamarrenbat urte elizeko obra egin zutenean korun ekusi nituen hautsixek. Lurren yartzen ziren karrakok eta akerrarai eraginez yotzen zituzten. Ostegun santutan zintzarrik ixildu eta karrakak yotzen zituzten elizen. Karrakik haundina sankristabek yotzen zuen lurren yarri eta akerrari eraginez eta zalaparta gaitze ateratzen zuen.

Ostiral santu egunean umek herri guzitik ibiltzen ziren karrakak yotzen eta sankristabe ere ateratzen zen bere karraka haundikin herrin yotzera.

ASTAITZ



CAJA RURAL
DE NAVARRA
NAFARROAKO RURAL KUTXA

Pesta onak pasa

Leitzako Bulegoa • Elbarren, 35 • Tel / Faxe: 948 610 735

Arturo Kanpion Jauna. Iruñeko semea

Leitzeko Aurrera K. Elkarteak, San Tiburtzio erriko festetarako, aspalditik oitura du aldizkari bat agirian ateratzeko, bai erritarrak eta bai arrotzak irakurri aal izateko. "Plazaola" izeneko aldizkari onetara, idatzgaiak bidali ditzazkegu, nai aal izanez gero.. Gero aldizkariaren arduradunek, beraiek dizkioten lekuan paratuko ditzuzte irakurri aal izateko.

Neroni, aldizkariak ematen duen eskeintza onetara murgilduz eta eskertuz, idazteari ekintzera nijoia zilegi, zilegiz; ea irakurle irakurri eta gero atsegiñezkoa dezun.

Arturo Kanpion Jauna. Iruñeko semea.

Gaurko nere lanaren etekiñaren naia hauxe da, izan dedila benetan zintzoa eta oiartzun oparotsukoa irakurle guztientzat. Arturo Kanpion Jaunari, zentzu osoz eskeinia.

Naparroako aberria sailkatzen ditzuzten lurrek, beti befidanik izan dira nola gizonez ala emakumez duintasun aundiko sor-lekuak, eder-eztenak.

Arturo Kanpion Jauna XIX. belaunaldian jaio zen, 1.854. ko maiatzean eta 1.937. ko apirilean, Donostian il zen.

Nik eskuetan erabili dedan liburu batek dionez, ikasketen bideak aukeratu ziren: aurtzarokoak Iruñeko eskoletan, gero Oñatiko Unibertsitatara igaro zen. Emengo aldia bukatu zuenean, Madrilko Unibertsitatara aldatu zen. Emen egonik, legegizon lizentziaturren goi-maila leporatzea 22 urterekin lortu zuen.

24urte zituen erriarentzako leenengo liburuak idatzi zuenean. Esamesa aundiak sortuarazi zituen liburuak, naparren artean bereziki. Izen au "Naparroako Diputazioa" zeramana zen eta ordurakoan karlistei foruengan sortu zitzaizkien liskar eta auziak oso nabarmenak izan omen ziren, oiartzun aundikoak naparren artekoan, alegia.

Arturo Kanpion Jaunak, aldi auetan, Iparraldeko

Zuberoko lurraldean sortu zen Antton Abbadiarekin euskerarenganaokoak loturak bazittuen.

Abbadía Jauna XIX. gizaldian, goimaileko jakintsua zen edonor jakintzako mailetan oso nekez iñor parakatuko zitzaiona.

Euskaltzale porrokatua omen zen, XIX belaunaldiko azkeneko urteetan eta XX belaunaldiko asierako urteetan jaiotako gizon au. Euskalerriko eguteraldekoak eta itxaso-mugetako erritan, sarien bidez edo beste antolaketan bidez diruz eta oore aundiz eta zilegiz, ornitu eta babestu zituen euskaraz bizi ziren erriak, bordak eta baserri giro zuten nonnaiko eremuak, gizon, emakume eta aurrarengan.

Antton Abadiak, estalpearengan isuri zuen bere miña eta gure izkuntza euskal errietan. Barreiatua izan zedin, izan zen bere gaitzespiritua bultzarazten zionak, euskaldun zerupeko izlariei.

Irakurle zaitudana orain berriro Kanpion maisuari jarraitu bear diot. Onek, bere inguruan zituen euskaltzale sutsuengan erabaki au artu zuen. "Euskal erriaren aldeko "Bazkuna" bat sortu zuen eta olatan bazkunatarrek idazten zittuzten liburu guztiei ikur bat ipiñi izatea zen bere erronka, beste liburu arrotzengandik nabarmen aal izateko.

Ikurrak zeraman izena au zen "Euskalerraren alde" eta saille onetan kokatutakoak ugari dira:

- "Gramática Vascongada de los cuatro dialectos de la lengua Vasca" 1.884koa.

- García Almoraviaren nobela, 1.889 an.

- "La batalla chica del Señor Nocedad", 1.893'ean.

- "El genio de Navarra". Liburu au da, batez beste ospe eta atsa agitz aundia eman ziona eta jakin dudanez gure 1.936. urte gerra doilarra, zitalen aurretik, napar jende askok etxeratu omen zuten eta dudik ez dut jartzen napar etxeetan gaur egun ere egonen direla, eta gure Leitza errian izatera ez ninduke batere arrituko.

Eusko ikaskuntzako leendakaritzaraiño iritxi zen. Iruñeko udaleko zinegotzia izatera ere bai.

Espartero Jeneralak, eta Españiko orduko gobernua

1.839. urtean, urriko 31an Euskalerrri osoari ezarri zion lege berria, zearo gaitzestu zuen.

Irakurle, Euskalerrriko giza-emakume zeratenoi au gal detzen dizuet:

ordurarte belaunaldiz belaunaldi gureak ziren lurrak, etxeak, baso-oianak, itxasoko uraren jabe, legeak agintzen duen aiñekoa izanik, noski jakiñez.

Aipatutako 1.839. urtean lege ori izanik, bai, gure orduko aiton-amonei beraien burujabetasuna gal duarazi zien edo kendu, ebatxi egin zitzairen.

Garai artako Españiko Madrilen nola edo alako Demokrazia izanen zen. Españiko orduko agintariek, Euskalerrriko, ordurako lau diputazioko (Naparroakoa ere bai) agintariei, oarra, albistea, igorri zien esanaz nola Madrillko Korteetan, zoritxarreko 1.839. legeari buruz oi danez "Batzar" bat ospatuko zela eta gure Diputazioko agintariei esanez, Batzarrerako bidali zitzatela beraien aukeratu tako lege-gizon eta bertaei zegozkien legebabeslariak.

Albistea esandaneke egunetarako, gure lege-gizonek Madrillko Korteetan bildu ziren. gure gizaseme auek, naiz eta azkarrak, gartsuak, eskolaz guztiz goijabeak izanik gure gizonen arrazoi bete beteak izanik, muzin muzinduaz baztertzen zittuzten. Madrilen, aldeko gizasemeek maltzurkeriz, doilorez, zitalkerez, nola iruzurkeriz bete beterik zeuden, guztiz guztiz pikardiz ornittuta zeudenak ziren. Beiñ ez ezik askotan irrakurri izandako naiz nola Madrilen gure gizonek saiatu ziren erriaren burujabetza eusten.

Beudete goiko zeruan, ala izan bedi orain gizon aien izenak burura ez etortzen arren, Iruñeko eta Donostiko kaleak zearkatzeko aldian kaleen izenak irakurtzean bai, orduan burura etortzen zaizkit gizon aaltu aiek egin zittuzten Euskalerrriarentzako mintzozko gatazkak.

Alferrrikoa jakiñe denez, orduz geroztik nolabait esateko, gure erria murgildurik dago pakearen eske eta zurrunbilloak pakearen eza uztartuz. Naparroak izan

zittun eta baditu jakiña erriaren aldeko nola gizon ala emakumeak, guztiz aaltuak. Baita ere emen Naparroan erriko naimenaren etsai gorri, gorri baziren bai, izkutatuta ezin utziko dizkizut irakurle, idazten ari natzaizun idatzi onetan.

Oarra: batzuk naparrak, geiengoak erbestarrak, irakurri, ain izan ziren doillarrak, zitalkoiak, izurkoiak, nola: Cisneros, Carvajal, Isabel, Fernando, Austrias, Borbones, katolikoak, konta ezin hainbeste gure erriaren burujabetzaren, izkuntzaren gaitzeslari peto, petoak.

Bai, neronek ezagututako parsarteak dira oraindik ere bizi diren leitzar asko bezalaxe 1.936. neko emaitz guztiz samiñak eta aaztu eziñezkoak zaizkit Adiskide, Jaungoikoak lagun, 2008 urte arte.

MIKONEKO DEMETRIOK

Tiburtzio donearen pestak

Etxeak eraiki eta eraiki, baina etxebizitza beharra ez da asetzen

Inork ez daki Leitza etxebizitza beharra zenbatekoa den. Ondorioz ezin jakin etxebizitza beharra asetzeko zenbat etxebizitza beharko liratekeen. Era berean, ez dakigu etxebizitza behar duten horiek nolako etxebizitzak behar dituzten: handiak, txikiak, gela bakarrekoak, bikoak... Ez dakigu ere etxebizitza behar duten horiek etxebizitzak erostea ala errentan hartzea nahiago duten eta are gutxiago zein den beraien ahalmena ekonomikoa.


Ikus dezakezue, gure ezjakintasuna handia da. Edozein herrik bere garapenerako argi eduki beharko lituzkeen hainbat datu ez ditugu ezagutzen. Bada, guztiok dakigunez, batzuentzat ezjakintasun hori ez da oztopo izan herrian beste 320 etxebizitza berri eraikitzen hasteko! Eskerrak, azken unean izan bada ere, hainbat herritarrek jokoan zegoenaz ohartu eta egitasmoa bertan behera gelditu dadin lortu dugu. Denborarekin ohar-tuko gara (agian) zertaz libratu garen.

Edozein modutan, herritarren eta herriaren beharrek inongo loturarik ez zuen egitasmo espekulatuak erraldoi hori geldiaraztea lortu dugun arren, etxebizitzaren arazoak hor jarraitzen du hainbat eta hainbat herritarrentzat eta guztien artean irtenbide bat ematen asmatu beharko genuke.

Lehenik eta behin arazoari neurria hartu beharko genioke. Badakigu hainbat leitzar euren etxebizitza eskubidea ase ezinik gurasoenean bizi dela. Badakigu,

gure anaia-arrebak edota seme-alabak direlako, baina ez dakigu orotara zenbat diren eta are gutxiago zeintzuk diren beraien behar zehatzak. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten horiez gain, bada beste batzuk etxebizitzaz aldatzeko beharra dutenak, dutena txiki gelditu zaielako edota baldintza egokietan ez dagoelako. Arazoa hor dago eta irtenbideak proposatzen hasi aurretik arazo hori zenbatekoa den jakin behar da.

Era berean, etxebizitza arazoari buruz herri eztabaida zabal eta sakona bultzatu beharko litzateke. Helburu horrekin, hausnarketarako zenbait ideia plazaratzea gustatuko litzaiguke. Lehenik eta behin zenbait kontzeptu argitzea komeni da, izan ere kontzeptuen nahasmena baliatzen dute hainbatek beraien negozioa justifikatzeko. Hasteko etxebizitza




beharra eta etxebizitza eskaria bezalako kontzeptuak argitu behar dira. Etxebizitza beharraren zati txiki bat soilik bilakatzen da etxebizitza eskari (solbentea dena, etxebizitza ordain dezakeena) eta etxebizitza eskari guztia ez da etxebizitza beharraren baitan kokatzen (etxebizitza eskariaren zati handi batek ez du etxebizitza beharrik, bestelakoak dira

bere interesak). Ondoko grafikoaren bidez errazago ulertuko da agian:

Hainbat politikarik (promotore, banketxe eta abarrek) etxebizitza behar handia dagoela eta etxebizitza gehiago eraiki behar direla esaten digute. Etxebizitza behar duten milaka lagunentzat datuak lau haizetara hedatzen dituzte behin eta berriz, arazoaren larritasuna azpimarratuz eta horrela milaka etxebizitza gehiago eraikitzea justifikatuz. Babes ofizialekoak edo librekoak, berdin dio, kontua eraikitzea da, eraikitzen jarraitzea, horrela aurrez aipatutako horiek guztiek irabazten jarraitzen dute.

Datuak ikusi besterik ez dago: etxebizitza baten hasierako salneurria %80 areagotzen da hipoteka mailegua ordaintzez bukatzen dugunean. Hau da, etxebizitzaren hasierako salneurriko 100 euro bakoitzeko 180 ordaintzen ditugu mailegua itzultzez bukatzen dugunean. Zehazki, 180 euro horiek honela banatzen dira: 76 euro banku eta kutxentzat, 74 euro lurjabe eta promotoreentzat eta 30 euro besterik ez eraikuntza materiala eta eskulana ordaintzeko. Honela, 330.000 euroko etxebizitza bat erosiz gero, mailegua itzultzez bukatzen dugunean 594.000 euro ordainduak izango ditugu: 250.800 euro banku edo kutxari, 244.200 euro promotore edo lurjabeari eta 99.000 euro besterik ez materialak eta eskulana ordaintzeko.



Zenbaki hauek ikusita ez da harritzeko azken hamarkadetan Euskal Herrian milaka eta milaka etxebizitza eraiki izana nahiz eta aldi berean biztanle kopurua murriztuz joan den, besteak beste, Europako hazkunde tasa urriena izatearen ondorioz. Etxebizitzak eraiki eta eraiki jarraitu dute, bai botere publikoek bai enpresa pribatuek, baina etxebizitza arazoak bere horretan jarraitzen du, okerrera egin ez badu. Eta galdera honakoa litzateke: non daude guztion diruarekin azken hamarkada hauetan eraiki diren Babes Ofizialeko Etxebizitza guztiak? Eraiki diren milaka babespeko etxebizitzak kontuan hartuz egun Administrazio Publikoek sekulako etxebizitza parke publikoa izanen dute, ez?

Ba ez. Guztion dirutik, guztion zergen bidez ordaindutako Babes Ofizialeko Etxebizitzak pribatizatuz joan dira urtez urte eta egun administrazioek alokairuzko dozenaka etxebizitza batzuk besterik ez dituzte. Nola da posible horrelako iruzur erraldoiaren aurrean inork deus ez esatea?

Ba oso erraz, Leitzan erabili duten estrategia bera erabiliz. Lehenik promotoreak kalkulatu egiten dituzte: zenbat lurzoru eraikigarri dago, zenbat eros dezaket, zenbateko irabaziak lor ditzaket... Puska ederra ateratzeko aukera badago lurzorua erosteari ekiten diot (berdin dio garesti erosten badut, eraikitzen den guztia saltzen da eta azken salneurriari erantsiko diot gainprezioa eta kitto). Jada eremu handi bat neurganatu dudanean egitasmoa politikariei aurkeztzen diet eta hauek (kasurik onenean Udalaren diru-sarrerak handitzeko eta okerreanean norberarena politikoak lortzeko) egitasmoa bere egiten dute eta egitasmoaren onurak saltzeari ekiten diote: etxebizitza beharra handia dela (inork neurtu ez duen arren eta inork nolako beharrak dauden jakin ez arren), horrenbeste Babes Ofizialeko Etxebizitza eraikiko direla eta kirol guneak eta bla, bla, bla... Eta oharkabean ehunka etxebizitza berri eraikitzen dizkizute

07 LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

3.000 biztanle eskaseko herrian!

Baina amesgaiztoa ez da hor bukatzen. Imajina egitasmoko 321 etxebizitzak eraikitzen direla eta demagun egitasmoan zehaztu bezala 152 libreak eta 169 "Babes Ofizialekoak" direla (90 errejimen orokorrekoak, hau da, merkeak eta 79 salneurri tasatukoak, hau da, garestiak). Aurrez azaldutako grafikora itzuliz, kasurik onenean, errejimen orokorreko 90 etxebizitza horiek etxebizitza beharraren zati bat besterik ez lukete aseko (eskari bilakatzen den behar solbentea) eta gainerako 231 etxebizitzak "bestelako eskariaren" esku geldituko lirateke (bigarren etxebizitzarako, espekulatzeko, inbertsiorako...).

Eta hau guztia zertarako? Ba hogeitun urteren bueltan edo, babestutako etxebizitza guztiak privatizaturik eta Leitzako etxebizitza beharrak bere horretan jarraitzeko. Izan ere, legeak ezartzen duen epea gainditu ondoren, gu guztion diruari esker, erdi-prezioan (edo merkeago) etxebizitza eskuratu dutenek, zati batean behintzat gu guztionak (herriarenak, komunalak) diren etxebizitza horiek merkatuko prezioan saldu eta aberastuko dira.

Leitzan, oraingoz behintzat, hau ez da gertatuko, ez behintzat aurreikusita zuten eskala makroan. Orain, gure esku dago eskala txikiagoan ere gerta ez dadin. Etxebizitza beharra zehatz-mehatz aztertu behar da, zenbatekoa den eta nolakoak diren behar horiek. Botere publikoek behar horri erantzun behar diote, etxebizitza eskubidea den heinean, ez beste ezeri. Eskariari eta espekulatzailerei erantzun diezaiola merkatuak. Hori bai, arazoari benetako irtenbidea eman nahi bazaio ez jarraitu orain arteko bidetik, ez "oparitu" Babes Ofizialeko Etxebizitzak jabetzan, hogeitun urteren bueltan berdin egonen gara eta. Ekin diezaiogun alokairuzko etxebizitza parke publiko eta merkea eraikitzeari eta poliki-poliki, pausoz pauso, hogeitun urteren bueltan, gutxienez, arazoari aurre egiteko bitartekoak geure esku izanen ditugu.

Ekin diezaiogun lanari, segi dezagun Leitze iñez, baina behar bezala.

LEITZE IÑEZ HERRI EKIMENA

Euskal Herria eta Leitza eraikitzen

PROZESU DEMOKRATIKOA: ANOETAKO PROPOSAMENA, ABIAPUNTU

2 urte eta erdi joan dira Anoetako Proposamena aurkeztu eta gizarteratu zenetik. Proposamen horretan, euskal gatazka konpontzeko bidean jartzeko metodologia jakin bat planteatu zen, bi karriletan banatuta. Karril horietako batean ETA eta Estatu arotuko lirateke, eta desmilitarizazioaz, presoek, biktimaz... jardungo lukete. Beste karrilean, berriz, alderdien arteko mahaia osatuko litzateke, eta bertan akordio politiko bat lortu beharko litzateke, betiere azken hitza herriari emanda.

Proposamenak, hasierako jarrera epel eta mesfidatiak gorabehera, oihartzun zabala lortu zuen, eta bertan egindako planteamenduaren inguruko adostasuna ere handia izan zen.

Testuingurua

Ekimen hori, jakina, testuinguru politiko jakin batean sortu zen: PSOEren eta PPren arteko itunak huts egin zuen; markoaren agorpena ere bistakoa zen; estatu-krisi bat zegoen, eta estatu-ereduaren definizio berri bat egin beharra, Kataluniako estatutua, Andaluzia...; bide polizialak kale egin zuen berriz ere; eraso guztien gainetik (ilegalizazioa...) ezker abertzaleak tinko egiten zuen aurrera; herrian konponbide bat aurkitzeko nahia oso sendoa zen; bidea elkarriketa eta akordioa dela oso uste zabaldua zen...

Testuinguru jakin horretan etorri zen, duela hamabost hilabete, ETAk iragarritako suetena. Helburu jakin bat zuen horrek ere: Euskal Herrian prozesu demokratiko bat abian jartzea, eskubideetan oinarrituta. Eta horretarako estatuak berak ere zenbait konpromiso hartu zituen:

- Alderdien mahaian erabakitakoa errespetatzea
- Ezker abertzalea "de facto" legalizatzea.
- Errepresioa gelditzea.

Duela hamabost hilabete esaten genuen benetako aukera bat zegoela Euskal Herrian prozesu demokratiko bat abian jartzeko, eskubideetan oinarrituta. Aukera bazegoen, beraz, baina baita arriskuak ere: alde batetik, PP-UPNren eraso bortitza; bestetik, PSOE-PNVren saiakera prozesua luzatzeko eta usteltzeko, era horretan ezker abertzalea asimilatu eta iruzur politiko berri bat egiteko.


Urtea pasatxo joan da suetena iragarri zenetik, eta balorazio xume bat eginda, honakoa esan genezake:

- Estatuak (PSOE) ez du bete hari zegozkion konpromisoetatik bat bakarra ere.
- Batasunaren ilegalizazioan sakondu egin da; Batasunako militanteak atxilotu eta torturatu dituzte, bere jardura publikoa galarazi egin dute behin eta berriz, berriki Arnaldo Otegi espetxeratu dute...
- Presoen eskubideen urraketa erabatekoa izan da, eta areagotu egin da, besteak beste kausa berriak sortuz (Unai Parot, Iñaki de Juana...).
- Ez dute Euskal Herria onartu eta errespetatu nahi.

Prozesuaren aldeko eta aurkako ahaleginak

Baina ibilbide honetan guztian PSOE ez da bakarrik aritu, eta bidelagun berezia izan du: Josu Jon Imazen PNV hain zuen. Lagundu ezezik, askotan bidea erakutsi eta aurretik jarri zaio PSOERI berari ezker abertzalea egurtzeko garaian. PNVk, argi esan beharra dago, ez du inongo aldaketa politikorik nahi, lehenesten duten bakarria "poltrona" da.

Ezker abertzaleak, berriz, bere aldetik jar zezakeena eta baita gehiago ere jarri du prozesuaren alde:



>>

Tiburtzio donearen pestak

- Elkarrizketa lehenetsi du.
- Alde biko suetena aldarrikatu du.
- Hegoalderako eta Iparralderako autonomia proposamen malgua egin du.
- Alderdien legea betetzen duen marka politiko berria aurkeztu du.

Zein izan da, ordea, ahalegin horrek jasotzen duen erantzuna? Mespresua eta egurra.

Eta zein da jarrera eta jokabide horren ondorioa? PP-UPNk, PSOEek eta PNVk ezetz esan diote gatazka gaindituko duen prozesu demokratikoari, ez baitute inongo baldintza demokratikorik sortu, are gutxiago Euskal Herriaren eskubideak onartu. Horren guztiaren ondorioz, ETAk bertan behera utzi du bere aldetik duela urtebete iragarritako sueten iraunkorra.

Azpimarratzekoa da, Ezker Abertzalearen grina eta borrokak PSOE eta PNV mahai beraren inguruan eseri arazi dituela, Batasunarekin autodeterminazio eta lurraldetasunaz hitz egiteko, lehen aldiz 30 urtetan. Oraingoan fruiturik eman ez badu ere, urrats garrantzitsua dugu prozesu demokratikoaren bidean.

Hori da gaurko egoera. Ezker abertzaleak, gaurko testuinguruan ere, herri honekin hartuta duen konpromisoari eutsi egiten dio, eta lanean jarraituko du baldintza berriak sortu eta benetako prozesua martxan jartzeko; aukera badugu, eta errezeta bakarra lana eta borroka da, argi gelditu baita edozein prozesu borroka-prozesu bat izan dela, estatuak ez duelako deus musu-truk emanen.

Beraz, nor bere tokitik, lanean jarrai dezagun Euskal Herria eraikitzen. Euskal Herria irabazten ari gara.

HAUTESKUNDEAK

Hauteskundeak Euskal Herrian

Lehenik eta behin, argi utzi beharra dago eta gogorarazi behar da egin berri diren hauteskunde hauek

guztiz antidemokratikoak izan direla. Ezker abertzaleak, oro har, ez du aukerarik izan aurkezteko, nahiz eta zenbait herritan salbuespenak izan. ASBri ez zioten erregistratzen ere utzi. Abertzale Sozialistak hautes-plataforma guztiak atzera bota zituzten, 90.000 euskal herritarren nahia bertan behera utziz. Eta, azkenik, EAE-ANVren zerrenda gehienak atzera bota zituzten.



Hauteskunde horiek, beraz, ez dira inolaz ere demokratikoak izan. Emaizari dagokionez, honako hau azpimarratu nahiko genuke:

- Ezker abertzalearen gorakada nabarmena. 190.000 bozka lortu ditu ezker abertzaleak. Berriz ere hankaz gora gelditu da PSOE-PNVren nahia. Ezker abertzaleak sendotasun handia erakutsi du, eta indar hori prozesua berriro matxan jartzeko erabiliko du. Boto horren balioa, horrenbestez, oso handia da, eta epe ertainean ikusiko dugu horien fruitua.
- PSOEren gorakada, nahiz eta Nafarroan jeitsi egin den. Esan liteke jende askoren pertzepzioa izan dela prozesuaren alde zerbait egin duela.
- UPN-PPren jaitsiera, nahiz eta Nafarroan mantendu egin den. Kalte egin dio Euskal Herriaren aurka izan duen jarrera itxiak.
- EAJ-PNV: jaitsiera nabarmena nozitu du. Abertzaleen artean indarra galtzen ari da, eta horretan, zalantzarik gabe, eragin zuzena izan du prozesuaren aurka izan duen jarrerak eta baita PNVren baitan dagoen lehiak ere.
- EA: lortu du bere oinarriari eustea; kontuan hartu behar da 3 lurraldetan aspaldiko partez bakarrik aurkeztu direla.
- EB-Aralar: ez dute lortu espero zuten emaitza, bozka kopuruari dagokionez batez ere; argi dago ez dutela oinarri sendorik eta oso zaila dutela polo nagusien artean tokia bilatzea.

- Nafarroa Bai: emaitza ona lortu du, eta Nafarroan bigarren indarra bilakatu da. Zalantzarik gabe, ongi saldu dute UPN-PP gobernutik kendu behar delako mezua, herritar nafar askok horri bozkatu baitio. UPN gobernutik kendu nahi zuten, baina ez dirudi aulkiez gainera bestelako aldaketa sakon politikorik etor litekeenik Nafarroa Bairen eskutik. Ezker abertzalea da une honetan Nafarroaren euskal nortasunari sendo eusten dion bakarra.

Hauteskundeak Leitzan



Lau aukera izan ditu leitzako herritarrek bertako udal hauteskundeetan. Emaitzak argi asko erakusten dute zein den bakoitzaren tokia, eta zein

den azken lau urteotan herriari egin dion ekarpena.

- Ezker abertzalea: nahiz eta azken lau urte hauetan ez duen aukerarik izan udalean egoteko, berriz ere lortu du herritarren artean erreferentzia nagusia izatea, eta era berean sendotasun handia erakutsi du. Emaitza ikustea besterik ez dago: 846 bozka, gehiengo osoa. Herriak konfiantza ezker abertzaleari eman dio; ez da txikia ezker abertzaleak herriarenganako hartzen duen erantzukizuna. Zalantzarik gabe, fin egin beharko du lana, eta ez da erlaxatzeko tenorea. Ezker abertzale osatzen duen gorputz sozialak badu zeregina, dena sei zinegotziren esku utzi gabe.
- EA: duela lau urte izan zuen beherakadatik atera egin da eta baita hainbat bozka berreskuratu ere. 414 bozka lortu ditu, eta hiru zinegotzi. Ezker abertzalearekin batera elkarlana bideratzea izanen litzateke egokiena, bai herriaren zein Euskal Herriaren ikuspegitik begiratuta.


- Aralar: "alkatetza" izatetik batera zinegotzirik ez izatera pasa da. Orain lau urte esan genuen ordukoa Aznarren politikari esker lortu zutela, eta denborak bere tokian jarriko zituela. Eta horixe gertatu da. Nolanahi ere, hiru faktore nagusik eragin dute Aralarren porrota:

- 1.- Udalaren kudeaketa eskasa, askotan herriarenganako harrokeria erakutsiz.
- 2.- Ikurrinaren afera.
- 3.- 320 etxebizitza eraikitzeko egitasmoari emandako babesak.

- UPN-PP: azken 30 urte hauetan izan duen emaitzarik txarrena izan da. 349 bozka, eta 2 zinegotzi. Beren boto-emaitzeak zigortu egin dute, argi zigortu ere, azken urte mordoska honetan erakutsi duten jarrera espainolista eta frankista. Herrian, oro har, ez dute deus eskaintzen, eta are gutxiago egin.

Azkenik, azpimarratu nahiko genuke herrian oro har bozka abertzaleak izan duen gorakada; seinale herri hau gero eta euskaldunagoa dela. Grafiko honetan ikus daiteke indartze hori:

	2003	2007
Ezker Abertzalea: Larrain / EAE	533	846
Eusko Alkartasuna	284	418
UPN	497	349
Aralar	485	138



	2003	2007
Bozka abertzalea, guztira	1.302 (% 72,37)	1.402 (% 80,06)

EUSKAL HERRIA ASKATU!

LEITZA 07

Aurrerako dantzarik Txekiara (II)

Kaixo Leitzarrak,

Nahiz guk hala nahi, idatzi hau, ez da berriz Txekiara joatekotan galako, bertako gertaerak kontatzeko baño.

Batzuk akordatuko zatean bezala, dantzarik Txekiatik barrena ibili ginen, bertan bi urtez behin antolatzen den "Babi Leto" kultur jaialdin parte hartuz. Bertako loa eta otordue, antolatzailen kargu bazen, bidaie geok ordaindu beharra izan giñun. Gastu hoiri aurre itteko, hainbat gauze antolatu eta dantza saio eskeini giñuzen, bai Txekiara joan aurren eta baita ondoren e. Baño, bultzadaik haundina, zuek eman zeñiguen. Pestetako bigarren eunen eskeini giñun dantza saioa bukatu baño lehentxeo maindirea pasa giñun eta izugarritzko diru laguntza eman zeñiguen, antolatutako zozketetan bezala. Beste behin e, (Ingurutzoko arropak itteko lagundu ziñuen bezala) Leitzeko herrik erakutsi zun, bere herrikide eta kulturaren alde itteko zer nolako borondatea dauken.

Txekiarako bidaie, irailen 11-n gaeuz, Leitzetik atera eta geldialdik in ondoren, hilek 12-n München-en (Alemania) allatu eta bertan pasa giñun gaue, batzuk lotan eta bestek nahikoa garagardo (hangoa bai garagardo earra, eta ondoren aurkittu giñuna hobe eta puskez merkegoa!) ean ondoren goiz alde erretiatu zien. Hurrengo eunen, berriz autobuse hartu eta Valašskē Meziříčí-ra allatu giñen, biden nahikoa komeri ibili ondoren, lekue ezin aurkittuz.

Bertatik, lotako lekure joan giñen, ordu erdin bat autobusez, leitzalarko ixkibartik aurrea dagoan pista moduko batetik barrena bide erdie, mendin galdutako alberge batea allatu giñen. Lotako etxea (etxetxo oso bat giñeuken Leitzar guzintzat) albergetik 300 bat metrotara zegoan, bidea gaeuz in behar izaten giñun eta han ez zen iñongo argik eta ilargi berrik ez ziun asko launtzen, batzu batzuk nahikoa

komeri pasa giñuzen ilunpetan bakarrik ibiltzeko.

Nahiz gaeuz berandu allatu, hurrengo eunen ez zen deskantsuik eta goizen goiz jeiki (hogeitamar laun giñen etxetxoan eta bi dutxa, goiz muittu behar denak pasa nahi izanez geo) eta dantza saioa eskeintzea abittu giñen.

Ostegune zen eta antzokie umez betea, bertan giñen talde bakoitzek saio motz bat eskeini giñun. Arrakasta itzela izan giñun, ume dantzak eskeini giñuzen eta baita bertako umeak dantzara gonbittu eta baita haiek erantzun e eszenatokire io eta gurekin dantzan ibili zien.

Bazkal ondoan, inguruko museo batea joan giñen, aire libren dagoan museo bat. Bertan, antzinako txekiar etxeak ikusi ahal izan giñuzen, dena eurre eta tarten gorotz eta lasto nahasketa antzeko zerbattekin betea. Leku zoragarrie!!

Gaeuz, talde bakoitzek, tokiko jan eta edana eskeini giñuzen, bakoitzek besten herrialdetako ohitura gastronomikoak ezautzeko aukera izanez. Esan behar sagardoak eta batik bat patxaranak arrakasta haundia izan zula.

Bihamonen (ostiela), berriz e, goizen goiz jeiki eta dantza saioak eskeintzea abittu giñen. Saio garrantzitsuneta, larunbatekoa eta igandekoa, jendea gonbitzeko lana izan giñun, herriko txoko ezberdinetan, gure dantzak eskeiniz.

Larunbateko eta igandeko saioek egitura berdiñe izan zuen, lehena Valašskē Meziříčí-n eta bestea Kelān, inguruko beste hiri baten. Lehenik herrin zehar kalejira, eszenatoki batean dantza saioa eskeinuta bukatzeko.

Asko gustatu zitzaizkien gure kulturako dantzak, beste herrialdeetako dantzekin zerikusi oso gutxi izanagatik. Beste herrialde gehinetakoak, dantzetan abestiak sartzen dituzte eta ia dantza guztiak biko-



tekako dantzak dira. Guri, harrituta galdetzen ziu-
ten, ia dantzetan ez giñun abesten, asko harritu zi-
tuen guk ez abestea.

Igandeko saioa berriz, hiri kanpoko zelai berde ba-
ten izan zen, goizez eliz batean abesbatza batek
bezain eder kantatu ondoren.

Ekitaldi guzik bukatuta, talde gehienak, etxerako mar-
txa hartu zuen, baño guk beste gau bat bertan pa-
sa eta hurrengo goizen abittu giñen ler kaka iñek.
Oso esperientzi politte eta aberasgarrie izan zen,
baño baita oso nekagarrie ere.

Bertan eon giñen denbo guzin, ia ez giñun tarteik
euki lasai eotteko edo deskantsatzeko, eun guztita-

ko ia ordu guzitan, zerbatte bazen in beharra. Eta
tartetxoia izan giñunen, entsaiatzeko arpobetxatu gi-
ñun. Behin aterako atzerrira eta maila ona eman
nahien. Ustez eta antolatzaileen hitzetan, saio poli-
ttek eta ikusgarrik eskeinita etorri giñen bueltan, be-
raz, denak pozik.

Haiseran esan bezala, eskerrik asko holako zerba-
ttetan parte hartzen launtzeagatik, zuen laguntzarik
gabe ezin izango giñun holakoik in!

Beti izanen ga zuekin zorretan eta zorrak kittatzeko
aurten e, iñalak iñen dittu, zuen gustoko ikuskizun
bat eskaintzen.

Bihotz- bihotzez ESKERRIK ASKO!!

AURRERA DANTZA TALDEA



POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
ISOLAKETA

AISLAN-LEITZA, s.l.

689 800 371
Santa Luzia pasealekua, 4 B behea Buztintxuri • IRUÑA



EGUZKI ileapaindegia

ASUN eta LIDIA

Ongi pasa pestak

Elbarren 34 - 1.A - ☎ 948 610 649 • LEITZA

LEITZAKO
gasolindegia

Rafael Mugicaren alarguna

948 510 057



ASTIZ ANAIK
ZURGINDEGIA

Klase guztietako egu lanak,
ateak, leihoak, tarima,
armairuak eta kristaldegia

ONGI PASA PESTAK!!
948 610 606 • 948 510 285

LEITZA
eraikuntzak

Aupa San Tiburtzioak

Patxi Arrazola, 14 • 948 610 927 - 948 610 934


EROSLE



SUPERMERKATUA

Gora San Tiburtzioak

☎ 948 510 007 ☎ 948 610 657 • LEITZA



LEIZA

MANDRILADORA

ONGI PASA PESTAK!



Eluseder Pol. Ind. - Tel. 948 510 600 - 948 510 601 • Faxe 948 510 602

PERURENA
harategia

Hemengo zekorretan espezialitatea
Urdaitegia

■ *Jai Zoriontsuak opa dizkizue*

Tel.: 948 51 01 64

OLIVEIRA - VICENTE

ERAIKUNTZA

Ongi pasa San Tiburtzioak

Amazabal Kalea 17, 3.B. • Leitza • 948 510 516

HERBODIETETICA
BELARRA

• Estetika zerbitzua

Elbarren, 35 • 948 510 192 • Leitza

Pintura lanak
orokorrean

MELO
pintura lanak

Tfnoa: 609 873 178 · LEITZA




**URTO
KARROZERIA**

TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK
Jesús Azurmendi Jauregi

Ongi pasa San Tiburtzioak!!

Kamineros etxea **BERASTEGI**
☎ 943 68 34 99 - 948 61 06 64



BEATRIZENEA
TABERNA-JATETxea

PESTA ONAK
IGARO

MENU • OTARTEKOAK • KAXUELITAK • PINTXOAK

Mikel Deuna, 2 • Tel: 948 510 991 • LEITZA

denontzat
MERTZERIA

Jostun tresnak, galtzerdiak eta
azpiko arropa

Tel. 948 51 05 61 • LEITZA



ARDI-GAZTA

Gorritz

*Pesta alaiak pasa ditzagun
errepresaliatuak gogoan ditugula*



Xabier Sestorain • Gorritz baserria • LEITZA • 948 510 570



bokatak eta afariak

Pesta onak pasa eta txintxo ibili

**PERITZA
TABERNA**

Elbarren, 23 • LEITZA • Tfnoa: 948 610 848

SAGARDOTEGIA SIDRERIA

ERREKA



948 510 625
Erreka auzoa

Leitza

AUPA
SAN
TIBURTZIOAK

LEITZA • Autobideko irteeran gaude Leitzarako norabidean


FOTO ULAZIA

Sta. Cruz, 43
Urbanización Zizur
948 18 33 01

Pesta zoriontsuak igaro



PELUQUERIA
ETXEIDE

ILEAPAINDEGIA

RECIENTE APERTURA
DAGOENeko IREKITA

Elbarren 35 - Tel. 948 510 738 - LEITZA

**MENDIGORRI
elkartea**

Pesta onak igaro

Patxi Arrazola ■ LEITZA



KAPRITXO


- * Opariak
- * Bitxiak
- * Neska eta mutilen arropak

ONGI PASA PESTAKI
Landa Ind. 948 510 994

JEIKI ABESBATZA

Gora San Tiburtzioak!

www.jeikiabesbatza.com
jeiki.leitza@gmail.com
Tel.: 948 510 512



MAIMUR

- Prentsa · opariak · testu liburuak
- Plastifikatzeak · enkuadernatzeak
- Inprenta lanak · fotokopiak

ONGI PASA PESTAKI!

Herriko Plaza
LEITZA
Tfnoa-Faxa:
948 510 146

ONGI PASA PESTAKI!

Lizarraga
harategia



Herriko Plaza · Tfnoa 948 51 02 83 · LEITZA



**SAGASTI
JATETXEA**

ongi igaro pestaki



Elbarren, 98 · LEITZA · ☎ 948 610 637

Gosariak · Kaxuelak · Ogitartekoak
Bazkariak · Afariak

Jose Ignacio ARZALLUS

Harategia · Urdaitegia · Etxeko txistorra

Tfnoa: 98 510 377 LEITZA
Tfnoa: 948 638 042 BERASTEGI

Jai zoriontsuak opa dizkizue

BITXILORE LOREDENDA

ONGI PASA BESTAKI

- LORE NATURALA
- LORE LEHORRAK
- EZKONTZETAKO LOREAK
- KOROIAK
- ETAB...

Elbarren 59 - Tel.: 948 510 654 - LEITZA

TXOKO TABERNA

- Pintxoak
- Otartekoak
- Kaxuelak

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE



BULDAIN
inmobiliaria

Tel: 948 510 534
Mug: 649 476 615
LEITZA

Pesta onak pasa!

Festa eder hauetan zuen nahiak
bete ditzazuen opa dizuet

JOVIZU S.L.
EMBALAJES

PESTA ONAK
OPA DIZKIZUE

Leitzalarreko errepidea, 1 km
948 510 053



**RODRIGUEZ
eta ERASO**

LANTEGIA

ongi pasa bestak!

Tel. 948 51 02 59 Elgoien kalea, 15



**MUSUNZAR
OSTATUA**

- Jatetxea
- Logelak

Elbarren, 14 • LEITZA • Tfnoa: 948 510 607 • 948 510 475
ONGI PASA PESTAKI!

J.M. HERNANDORENA

Burdindegia • Garbigarriak
Oparidenda • Garraioak

**ONGI
PASA
PESTAKI!**

Telefona: 948 510 055



ateak • zurezko leihoak • leiho mistoak • tarimak
sukalde eta armairu enpotratuak
zurgin lan guztiak **ongi pasa pestak!**

Goiko Errota - LEITZA
Tfnoak: 948 510 402 - 609 067 123

ORAIN ELKARTEA

*Jai zoriontsuak opa dizkizueg
herritar eta bisitari guztiagi*

LEITZA

GOZOTEGIA

Eguzkitza

Bº Erreka, 3 Bajo - 948 510 614 LEITZA
Elbarren, 35 - 948 610 646 LEITZA
San Frantzisko, 24 - 943 650 041 TOLOSA

Ongi pasa pestak!

gaztañaga **a**
taberna

Otartekoak, Pintxo beroak, Kaxuelak
948 610 708

TXARAGORRI
ITURGINTZA
FONTANERIA

ONGI PASA BESTAKI!

Elbarren, 56 (Martikonea) • Leitza • 649 853 440

ASTIZ



Liburudenda

Elbarren kalea Tel/Faxa 948 510 262

- » Prentsa
- » Testu liburuak
- » Opariak
- » Inprenta lanak
- » Eskolako gaiak

Pesta onak pasa



*Jai zoriontsuak opa
dizkizuegu!*

Jatetxe-ostatua

Tfnoa: 948 397 035 / 669 013 294
www.iruso.com

IMELDA LARRAZ

Estankoa, Janari denda etb...

Jai zoriontsuak opa dizkizue

GARBI

Garbigaidenda eta lurrindegia

948 51 01 73

Ongi pasa besta!


LEITZELARREA S.L

aroztegi metalikoa

Landa Industrialdea, 20

Tel: 948 510 598 - 669 368 991

LEITZA



ARAKINDEGIA

jatetxea

Menua · Karta
garaien garaiko otorduak

ONGI PASA PESTAK!!

Elbarren, 42 · LEITZA

Tfnoa: 948 510 052 · Faxa: 948 510 633



BIKOITZ

Taberna

- » Pintxoak
- » Otaratekoak
- » Pastelak
- » Tartak

ENKARGUAK ERE HARTZEN DITUGU
Ongi pasa pestak!

Elbarren, 16 · LEITZA · Tfnoa: 948 510 072

GURATZ-MENDI

K.K.J. ELKARTEA



ongi pasa bestak!

Elgoien, 22
LEITZA

AMAIA



arraindegia

EGUNEKO ARRAIA

ONGI PASA
PESTAK !!

Uharte Gotzaia · LEITZA
948 510 590

Biok Jantziak

Gizonezko, emakume eta umeentzako jantziak

Elbarren, 32 · LEITZA · 948 510 558 · 948 510 477

PLAZA ASEGURUAK

Mota guztietako aseguruak

Pesta onak pasa ditzazuela

Uharte Gotzaia, 8 · LEITZA
Tfnoa: 948 510 338

ARIZTIMUÑO ANAIK

eraikuntzak

Lan orokorrak eta berrikuntzak

Ogin pasa pestak

948 510 202 · 948 510 374 · LEITZA



**BANCO DE
VASCONIA**

*Leitzar eta bisitari guztiak
pesta goxo batzuk pasa ditzazuela*

948 510 135 - LEITZA



**Leitzar taberna
948 510 352 • LEITZA**

Pesta onak pasa

TXAPA PINTURA LEITZA KARROZERIA

Txapa konponketa, kabinan egindako pintaketa eta labean egindako lehorketa, kolpe haundien konponketa (bankada).

Leitze - larreko errepidean **LEITZA**
Tels. 948 51 04 60 - 948 51 05 58 (Etxekoa)

JUBILATUEN TABERNA

*Ongi pasa
SanTiburtzioak!*

948 610 935

FISIOETXEA

Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta



- » Errehabilitazioa
- » Osteopatia
- » Kirol eta zirkulazio masaia
- » Erditze aurreko / ondorengo tratamendua:

- Mutuak
- Aseguruak
- Partikularrak

Ongi pasa San Tiburtzioak

Uharte Gotzaia, 8 3.C - LEITZA - Tel.: 948 510 730

JEXCAVACIONES JOARBE S.L

*Jai zoriontsuak
opa dizkizue*

**OBISPO HUARTE 8
Tel/Fax.: 948 610 971
Mugikorra: 629 219 068**



Grupo Tanatorio Taldea

IRACHE

Maldarreka S.L.
Leitzako Belatokia

**24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN**

**TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA**

**LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK**

TEL. 948 63 74 04 • 628 03 02 90

ETXE-TRESNAK S.L ELETROGAILUAK

Instalazio elektrikoak



ONGI PASA PESTAK!!!

**948 510 208 - 948 510 181
LEITZA**



ARRARAS
edariak, S.L.

C.I.F. B-31838333

Polg. Eluseder, nave 1ª • ARESO (Navarra) • hnos. arraras@telefonica.net

Tel.: Oficina: 948 1 08 88 • Fax: 948 1 08 3 • Móvil: 630 048 770

KORNIETA ELKARTEA

*Ongi pasa
San Tiburtzioak
LEITZA*



HARTEGIA-URDATEGIA URKIOLA

*Jai zoriontsuak
opa dirizkizue*

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

Tel. 948 510 747 / 948 510 467 - LEITZA

DENAUTO SAGASPER TAILERRA

AUTO KONPONKETA - CITROEN AUTOAK - GRUA ZERBITZUA



Eluserder Industrialdea
Poligono Industrial Eluserder

Tel.: 948 510 610
Faxa: 948 510 917

31876 ARESO
(Nafarroa)

CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA

ARKITEKTU TEKNIKOA

Proiektuak • Aurrekontuak
Berrikuntzak • Obren kontrola
Lur neurketak • etc.

948 610 677 • 629 611 912


Ongi pasa San Tiburtzioak !



Gustua baduzu, hementxe gaituzu

Sukaldaritza fina • Enpresako bazkariak
Ezkontzak eta oturuntzak
Jaunartze eta bataioak
Jantoki zabalak • Ekitaldi aretoak
Aparkaleku zabala • Igerilekua

Leitzako gaina • 31877 LEITZA
Tfnoa: 948 510 125 • Fax: 948 610 965



Pesta onak pasa



ZORTZIKO LABETXEA KAFETEGI GOZOTEGI ETA OKINDEGIA

- Ogi egin berria
- Pentsa, Gosari goxo goxo (laranja zuku naturala, croissant eta kafea)
- Pastak, Pastelak, Tartak (Enkarguak egun batetik bestera ekartzen dira)
- Zapore guztietako kukurutxuzko izozkiak

Elbarren 20 Tfnoa: 948 510 720



LEITZA GARAJEA NEKAZARI TAILERRA

Ia denok kategoriko pestak pasatzen ditugun

Landa Industrialdea - Tel.: 948 510 466 - LEITZA
Elizaren atzealdean - Tel.: 943 683 542 - BERASTEGI
Alfonso El Batallador 3 - Tel.: 948 279 702

Dia %

OKABIO

Kafetegia

SUPERMERKATUA

Pesta zoriontsuak
opa dizkizuegu!
Tel: 948 510 731

Dia % Landa Etxea · Leitza

LENITZ

EDARITEGIA

ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA INSALUS, SAN MIGUEL GARAGARDOA

ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA

Pai zoriontsuak opa dizkizue


Tel. 948 51 03 33




TORREA ETXEA

GOSARI, ETA AFARI, EDERRAK

EUSKAL MARTXA ETA
BORROKA ERREPRESALIATUAK
AHAZTU GABE



948 61 09 09



MARGARI TAXIA

Taxia 24 ordiko zerbitzua • Servicio de Taxi 24 horas

Telf.: 608 87 30 16 • 948 6c0 710

31880 LEITZA (Navarra)

Pinturas
ZUBI
Margoak

pinturas en general

Pol. Ind. Usabal nº 148 - 20400 TOLOSA (Gipuzkoa)
Elegaren 97 2ª planta - 31880 LEITZA (Navarra)
Tel: 948 510 990 Fax: 948 510 970

ONGI IGARO PESTAK !!

www.taloak.com

T 948 510 989
F 948 610 996
M 649 241 804

M. Lasarte, 1
LEITZA

TALOAK
GURE BETIKO TALOA

ONGI PASA PESTAKI

 **LEITZA**
AHOLKULARITZA - ASESORIA S.L

» Enpresen sorrerak » Zegak
» Nominak, kontratuak » Autonomoak
» Kontabilitatea

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Landa Ind. Suizpi, 3 - LEITZA
T. 948 510 990 F. 948 510 249 - 639 869 312

Mikel Zabaleta | **abokatua**

Pestak ongi pasa!

Tfnoak : 676 24 21 24 / 948 510 541 • mzabaletaa@micap.es

GURIA
KARROZERIAK
TXAPA - PINTURA

P.KALDERON

Txapa	• Neurgailu elektronikoa ordenadorez, diagnosiak bankaden neurria.
Pintura	• Labe kabina. Denetariko pinturak (ekolojikoak, uretara...)
Autogarriketa	• Garbitzeko ur beroko makina, aspiragailua. Irekita egun guztiak
Berreldaketa	• Denetariko akzesorioak eta berreldaketak (Ilantak, pilotoak, kateak, etab...)

LANDA POLIGONOA • 948 51 02 55 • LEITZA

LEITZAKO
EUSKALTEGIA



948 610 776

Hizkuntza hazia
mintzoaren lore
zazpi itxura eta
hamaika kolore.

Bizi nahian gabiltza
milaka landare
gure baratzakoa
al zara zu ere?

J.Sarasua

LOREA

ileapaindegia eta
solarium-a

Gora San tiburtzioak

☎ 948 610 907 • LEITZA



TALLERES

ONGI PASA PESTAK!

Ireber S.L.

MANTENIMENDU PREDIKTIBOA
INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA

Landa industrialdea - Pab. 9B - 10B LEITZA

☎ 948 629 535 - 629 823 191

Jose Maria
etxeberria

gizonezkoentzako ileapaindegia

Gora San Tiburtzioak

jm 948 510 282 • LEITZA

Xm

Xabier martinikorena

948 610 678 • 699 659 526 • LEITZA


ongi pasa pestak!!

Pladurrezko sabai eta tabikeak
Isolamendu termiko akustikoak
Etxe moldatzetan espezializatuak
Apalategiak
Sabai desmuntagarriak

Iturgintza lanak
kalefakzioa, gasa
eta zeramika

Gaztelu

Pesta onak pasa!!!



Landa Behikoa Industrialdea 21
31880 Leitza

Tel: 948 510 086

Email: gazteluf@infonegocio.com



**JAI ALAI
OSTATUA**

Tfnoa: 948 510 735 • Faxe: 948 510 736
www.jai-alai.es • info@jai-alai.es

ONGI PASA PESTAK!!

**Sagastibeltza
eta Artola**

Era guzitako igeltsero lanak
Gona Leitzako pestak!

TEL.: 948 510 265 / 948 610 724



LEIMEN

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

Jai zorientsuak denoi!!



**ULI-ZAR
ELKARTEA S.L.**

ITURGINTZA, GASA, GASOLEOA, TXIMENEAK

Ongi para Pestak!

Bide onde etxea ARESO • San Miguel, 2 LEITZA
948 510 153 / 948 610 682 / 689 701 557
Larrialdiak: 948 271020

Pagozelay
construcciones

ERAIKUNTZAK • HERRI LANAK

*Jai zorientsuak
opa dizkizue*

Landa Industrialdea • 17 B 1go solairua
31880 LEITZA • NAFARROA
Tfnoa: 948 510 346 • Faxe: 948 610 962



VANPAC, S.A.

(Vasco Navarra de Papel y cartón)
PAPER ETA KARTOI BERRESKURAPENA

Zai zorientsuak opa dirizkizue



Tolosako errepidea, 2 Km-an
Tel. 948 51 01 61

Amazabal, 37 • LEITZA
948 610 756 • 615 100 842
**ongi pasa
pesta!**

G@ZTETXO

ZIBER- GUNEA

@ INTERNETA
@ JOKOAK-SAREAN
@ JUEGOS EN RED
@ ESKANERRA
@ INPRESORA




ELBARREN 16 • LEITZA TEL. 948510741

ARANTXA

ileapaindegia

GORA SAN TIBURTZIOAK

Obispo Huarte, 8
☎ 948 610 931




GORRITZ

ERAIKUNTZAK • ESKABAZIOAK


LEITZA (Nafarroa) TLF: 948-510 140/ FAX: 948 510 996

SANTIBURTZIO ONAK PASA!!!


ETA FESTETAN... ZER?



ELKARBANATU FESTA... ETA LANA



EZETZA, BETI DA... EZETZ!



UDALETXEAK, FESTETAN ERE, BERDINTASUNAREN ALDE

NAFARROAKO BERDINTASUNAREN ALDEKO ERAKUNDEAK SUSTATUTAKO KANPAINA



Nafarroako
Gobernua



Leizako
Udala